EUSKAL KIROL FEDERAZIOEN BATASUNAREN KIROL ARBITRAJEKO ARAUDIA

Pertsona natural edo juridikoek, aldez aurretik hitzartuta, zuzenbidearen arabera askatasunez xedatzeko esparruan sortu diren edo sor daitezkeen auziak erabakitzea arbitro baten edo batzuen esku uzten dituen sistema da arbitrajea.

Arbitrajea kirol-arlokoa da baldin eta arbitraje-gatazketan adituak diren pertsonek erabakitzeko utzi diren gatazkak era honetakoak badira: kirola egitean edo garatzean, jarduera horren ondorioz sortzen diren diru-interesei buruzko auzietan edo bestelakoetan, edo edozein kirol-jardueratan, lehiaketa ofizialak edo kirolaz kanpokoak barne, sortu direnak; betiere esku hartzen duten aldeek nahi bezala xedatzekoak badira.

Kirol-arbitrajeko sistema horren oinarria Arbitrajeko 2003ko abenduaren 23ko 60/2003 Legea, 2011ko maiatzaren 20ko 11/2011 Legea eta Euskadiko Kirolaren 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legea dira, orobat Euskal Kirol Federazioen Batasunaren estatutuak beraiek.

Euskal Kirol Federazioen Batasunak eskainitako kirol-arbitrajeko zerbitzua kode honetan aurreikusitakoaren arabera arautuko da.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua

Honako erregelamendu honen xedea da kirol-arloko gatazkak konpontzeko modu gisa arbitraje-prozedura arautzea, batik bat Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, betiere jarraituz Arbitrajeari buruzko 2003ko abenduaren 23ko 60/2003 Legean eta Estatuko Administrazio Orokorrean arbitraje instituzionala arautzen duen 2011ko maiatzaren 20ko 11/2011 Legean ezarritakoa.

2. artikulua. Esparru instituzionala

Euskal Kirol Federazioen Batasuna (aurrerantzean EKFB) da ondorengo egitekoak zaintzen dituen erakundea: arbitrajea behar bezala administratzea, prozedura zuzenbidearen arabera gauzatzea, arbitroen gaitasun-baldintzak betetzea, eta izendapena gardena eta independentea izatea.

3. artikulua. Arbitrajea arautzea

Arbitrajea erregelamendu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da, eta, bertan aurreikusi ez diren kasuetan, Arbitrajeari buruzko 2003ko abenduaren 23ko 60/2003 Legean, hori erreformatzeko eta Estatuko Administrazio Orokorrean arbitraje instituzionala arautzeko 2011ko maiatzaren 20ko 11/2011 Legean edo aipatutako arauak aldatu edo indargabetuz gero aplikatu beharreko arau-xedapenean ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Gatazkak konpontzeko prozeduren eremua

Bat. EKFBren kirol-arbitrajeak izango du ardura, baldin eta hori ahalbidetzen duen hitzarmenen bat badago, honako hauen inguruan:

a) Kirol-eragileen artean sortzen diren auziak (kirolariak, klubak, kirol-federazioak, kirol-arloko enpresak), betiere eskuordetutako funtzio publikoei buruzkoak ez badira.

b) Kirol-erakundeen eta bazkideen arteko harremanak, horien helburu sozialaren esparruan.

c) Erakunde babesleen eta federazioen, kluben edo kirolarien arteko harremanak.

d) Erabiltzailetzat hartzen diren pertsona guztien edota erakundeen arteko harremanak, honako egiteko hauetan: ekitaldiak antolatzea, kirol-instalazioak erabiltzea, eta kirol-ikastaroetan edo -prometan parte hartzea.

e) Kirol-ekitaldi pribatu bat antolatzetik edo horretan parte hartzetik eratorritako edozein kontratu-gai edo kontratuz kanpoko gai.

f) Dagozkien eskumenen barruan, kirol-lehiaketen esparruan sortzen diren harremanak, ofizialak izan edo ez, eta, betiere, botere publikoei esleitutako eskumenei kalterik egin gabe.

Bi. Sortzen diren auzigaiez arduratzea auzietan egiten diren jardueretatik eratorritako arazoetara mugatuko da, eta alde batera utziko da horien artean harreman bereziak sor ditzakeen beste edozein arazo.

5. artikulua. Arbitraje-hitzarmenari buruz

Bat. Kirol-arloko auziren bat arbitratuz erabaki nahi duten pertsona natural edo juridikoek, hitzarmen bidez, arbitraje hori administratzea eta arbitroak izendatzea Euskal Kirol Federazioen Batasuneko kirol-arbitrajeko zerbitzuaren esku utzi ahal izango dute, eta zerbitzu hori administratzera behartuta egongo da, alderdien gomendioa onartzen den unetik.

Bi. Arbitraje-hitzarmenak hitzartutakoa betetzera behartuko ditu alderdiak, eta horiei ahalmena emango die hitzarmen hori salbuespen gisa aipa dezaten arbitratzeko auzigaien ardura euren gain hartu nahi duten epaile eta auzitegien aurrean. Hala ere, adostera iritsiz gero, alderdiek uko egin ahal izango diote hitzartutako arbitrajeari, eta bide judiziala zabalik geratuko da.

Hiru. Arbitraje-hitzarmenak adierazi beharko du alderdiek zalantzarik gabeko borondatea dutela auzi jakin bat edo harreman juridiko jakin batetik eratorritako guztiak, kontratukoak izan ala ez, izendatutako arbitroen erabakiaren mende jartzeko, kirol-arbitrajearen kode hau aplikatzeko, eta arbitraje-erabakia betetzeko betebeharra adierazi beharko du.

Lau. Arbitraje-hitzarmena idatziz formalizatu beharko da, beste kontratu nagusi bati erantsitako klausula gisa edo haren akordio independente baten bidez. Akordioa idatziz formalizatu dela ulertuko da, dokumentu bakar batean jasota egoteaz gain, gutunak, telegramak, telexak, faxak edo alderdiek kode honetan aurreikusitako kirol-arbitrajearen mende jartzeko borondatea agiri bidez jasota uzten duen beste edozein bitarteko trukatuz gero. Baldintza hori betetzat joko da baldin eta hitzarmen hori euskarri elektronikoan, optikoan edo beste mota bateko euskarri batean kontsultatzeko eskuragarria bada. Arbitraje-hitzarmena sartuta dagoen kontratu nagusia baliogabetzeak ez luke nahitaez hura baliogabetzea eragingo, baldin eta alderdiek haren baliozkotasunari eusteko borondatea adieraziko balute.

Bost. Arbitraje-hitzarmena, eta, beraz, erregelamendu honen menpe jartzea, era honetan gauza daiteke:

a) Arbitraje-klausula bat duen kontratu bat.

a) Auzia planteatu ondoren hitzartutako dokumentu independente bat.

b) Federazio, elkarte edo beste kirol-erakunde baten estatutu edo erregelamenduak, legez kirol-arbitrajetik kanpo ez dauden diziplina-gaiei dagokienez, aipatutako estatutuek edo erregelamenduek arbitrajera jotzeko aukera aurreikusten dutenean, oro har, edo Euskal Kirol Federazioen Batasunekora, bereziki.

II. TITULUA

ARBITRAJEA ADMINISTRATZEA

I. KAPITULUA

ALDERDI OROKORRAK

6. artikulua. Ezaugarriak

Bat. Erregelamendu honen arabera, EKFBk Kirol Arbitrajeko Euskal Epaimahaiari (aurrerantzean, KAEE) ematen dio arbitrajea administratzeko ardura.

Bi. KAEEk ez du berezko nortasun juridikorik, eta EKFBren mende dago hierarkikoki, horrek kalterik eragin gabe erregelamendu honek esleitzen dizkion ahalmenei eta eskumenei, eta euskal kirolari zerbitzua ematen dio arbitrajeari dagokionez, oinarritzat hartuta 60/2003 Legean jasotako zuzenbide pribatuko arauak (lege hori 11/2011 Legeak erreformatu zuen), edo aipatutako arauak aldatu edo indargabetuz gero aplikatu beharreko arau-xedapenak.

Hiru. KAEEra jotzeko erabakiak esan nahi du arbitrajea erregelamendu honetan jasotako xedapenen arabera administratuko dela.

Lau. KAEE arbitraje-hitzarmenaren edukiari lotuta dago, eta, beraz, ezin izango du hori baztertu.

7. artikulua. Administrazioa eta kudeaketa

Administrazio- eta kudeaketa-lanak EKFBk egingo ditu, eta, dagozkion eskumenen eta alderdien eskubideen esparruan, erakunde horrek kirol-arloko gatazkak arbitrajearen bidez konpontzea sustatu beharko du, bai eta KAEEren independentzia babestu ere.

8. artikulua. Egoitza

KAEEk EKFBko egoitzan izango du kokaleku nagusia (CPT eraikina, Makaletako etorbidea z. g. 48991 GETXO), kalterik eragin gabe EKFBren edo erakunde publiko edo pribatuen beste egoitza batzuetan egin daitezkeen jarduketei, batez ere arbitraje instituzionalak administratzen dituztenei, baldin eta horiekin akordio egokiak adostu badira.

III. TITULUA

ARBITRAJEA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

9. artikulua. Arbitrajearen mende jartzea

Bat. Erregelamendu honen 4. artikuluan jasotako eztabaida oro KAEEren arbitrajearen mende geratuko da, betiere baldin eta alderdi guztiak behartzen dituen arbitraje-hitzarmen bat badago.

Bi. KAEEak arbitratzearen mende izateak berekin dakartza arbitrajea administratzea eta arbitraje hori egiteko adituak izendatzea.

10. artikulua. Arbitraje-modalitateak

Bat. Arbitroek zuzenbidearen arabera edo ekitatez erabakiko dute beren eginkizunaren mendeko auzia, hurrengo paragrafoan zehazten den bezala.

Bi. Baldin eta alderdiek ez badute berariaz ekitatearen aldeko hautua egin, arbitrajea zuzenbidearen arabera ebatziko da. Berariazko aukera hori dagoela ulertuko da, baldin eta estatutuetako klausulek, barne-araubideko klausulek edo, oro har, menpean jartzeko arbitraje-hitzarmenak hautatutako arbitraje-modalitatea aipatzen badute. Egintza horietan ekitate-arbitrajea aukeratu bada, baina lege arrazoiengatik arazoa nahitaez zuzenbideko arbitrajearen bidez ebatzi behar bada,

azken aukera hori joko da hautatutzat, betiere baldin eta alderdietako batek berariaz aurka egiten ez badu.

11. artikulua. Arbitrajearen subjektuak

Arbitrajearen subjektuak dira auzi eztabaidagarrian legitimatutako alderdiak eta arbitroak.

12. artikulua. Prozedura eta dokumentazioa

Bat. Arbitrajearen izapideak egitean, arbitraje-subjektuek nahitaez errespetatu beharko dituzte erregelamendu hau eta erregelamendu honetara igortzen diren edo era subsidiarioan aplikatzekoak diren arauak, eta araudi hori ezin izango da aldatu arbitraje-subjektuen borondatez, non eta aipatutako araudiak ez duen berariaz kontrakoa xedatzen.

Bi. Alderdiek aurkeztutako idatzi guztiez gain, gainerako alderdiak eta arbitraje-jarduketetan esku hartzen duten arbitro edo ertzainak zenbat, hainbat kopia aurkeztuko dira, eta jatorrizkoak KAEEren egoitzan gordailutu eta artxibatuko dira.

Hiru. Aurkezten den dokumentazioa originala ez bada, aurkezleak hori ere erakutsi egin beharko du, baldin eta KAEEk edo alderdietako edozeinek hala eskatzen badu.

Lau. Edonola ere, datuen tratamenduari dagokionez, oro har Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko 2018ko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan aurreikusitakoa hartuko da kontuan.

Bost. Arbitrajean sortutako dokumentazioaren konfidentzialtasuna ondorengo hauek guztiek bete beharko dute: KAEEk berak, aldeek, horien legezko defentsek edo aholkularitzek, perituek, noizbait lekuko gisa jardun dezaketen pertsonek eta arbitrajea ematen duten pertsonek.

13. artikulua. Arbitraje-lekua

Bat. Arbitratze prozedura KAEEren egoitzetako batean garatuko da, kalterik eragin gabe erregelamendu honen 7. artikuluan ezarritakoari.

Bi. Hala ere, arbitroek toki horretatik kanpo ekitea erabaki ahal izango dute, baldin eta arbitrajea ebazteko komenigarritzat jotzen badute.

14. artikulua. Hizkuntza

Bat. Alderdiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute arbitroekiko harremanetan.

Bi. Dena dela, hizkuntzari dagokionez, 60/2003 Legearen 28. artikuluaren 1. paragrafoan ezarritakoa aplikatuko da, 11/2011 Legearen bidez egindako idazketa berriaren arabera.

15. artikulua. Postulazioa

Bat. Alderdiek beren burua defendatu ahal izango dute edo arbitroen aurrean jardun ahal izango dute, beren kabuz edo jarduteko gaitasuna duen eta horretarako izendatu duten ordezkariaren bidez.

Bi. Ordezkaritza hori prozedura osorako izan daiteke, edo, baldin eta berariaz hala adierazten bada, bertan garatzen diren jarduketa baterako soilik.

Hiru. Era berean, kirol-erakundeek edo -enpresek edo beste pertsona juridiko batzuek administrazio-organoko presidentearen bidez edo administratzaile bakarraren bidez jarduten dutenean, erregistro eskudunak emandako karguaren indarraldia egiaztatzeko ziurtagiria jatorrizkoa aurkeztu beharko dute.

16. artikulua. Helbidea eta komunikazioak

Bat. Alderdiek, euren kabuz edo beren ordezkarien bidez, helbidea adierazi beharko dute arbitraje-prozeduraren eremuko komunikazioetarako eta jakinarazpenetarako. Era berean, eta helburu

horiek gauzatzeko, helbideari dagokionez gerta daitekeen edozein aldaketaren berri eman beharko dute.

Bi. Jakinarazpen edo komunikazio oro jasotzat joko da hartzaileari edo haren ordezkariari aurrez aurre entregatu zaion egunean, edo haren egoitzan, ohiko bizilekuan, establezimenduan edo helbidean entregatu den egunean.

Hiru. Alderdien jakinarazpenak idatziz egingo dira, interesdunak edo haren ordezkariak sinatuta.

Lau. Halaber, balioko du telex, fax edo telekomunikaziorako beste bitarteko elektroniko, telematiko, optiko edo antzekoren baten bidez egindako jakinarazpen edo komunikaziok, baldin eta interesdunak izendatu baditu eta idatziak nahiz dokumentuak bidali eta jasotzeko aukera ematen badute, bidali eta jaso direla egiaztatuta.

Bost. Baldin eta arbitraje-prozedurako auzi-jartzaileak ezin badu aurkariaren egoitza izendatu, edo ezin badu jakinarazpena edo komunikazioa izendatuta dagoen lekuan helarazi, arrazoizko ikerketa bat egingo da haren helbidea, ohiko bizilekua, establezimendua edo helbidea zehazteko. Leku horietako bat bera ere aurkitzen ez bada, jakinarazpenak edo komunikazioak hartzailearen azken helbidean, ohiko bizilekuan, helbidean edo establezimendu ezagunean helaraziko dira, posta ziurtatu bidez edo idatziz egiaztatuta uzten duen beste edozein bide erabiliz. Entregatu den egunean edo entregatzen saiatu den egunean hartutzat joko da, eta berariaz adierazi beharko da azken kasu horretan.

Sei. Arbitrajean parte hartuko duten alderdiek informazio egokia eman behar diote KAEEri edo arbitroei ezinbestean, egiazko bizilekua hobeto lokalizatzeko, arbitraje-prozeduran zehar haien bizilekuetan gertatzen den edozein aldaketa barne.

Zazpi. Edonola ere, eta salbuespen gisa, jakinarazpena helaraztea ezinezkoa izan den kasuetan, KAEEk egin ahal izango du helarazte hori, EKFBren web-orrian argitaratuta, eta atal bereizi bat ezarriko du kasu

horietarako iragarki-taula, betiere baldin eta jakinarazpenaren hartzailearen azken helbidea Euskal Autonomia Erkidegoa badago.

17. artikulua. Epeak

Bat. Erregelamendu honetan ezarritako epeak egutegiko egunak aintzat hartuz zenbatu behar dira.

Bi. Dena dela, 22. artikuluaren arabera, prozedura etenda geratuko da abuztuan eta abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra bitartean.

Hiru. Jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko dira epeak.

Lau. Hilabeteka adierazitako epeetan, egun batetik bestera zenbatuko dira.

Bost. Baldin eta jakinarazpena edo komunikazioa jasotzen den lekuan epea amaitzeko eguna jaieguna bada, hurrengo lanegunera arte luzatuko da. Idatzi bat epearen barruan aurkeztu behar denean, epea betetzat joko da baldin eta egiaztatzen bada idatzia epearen barruan igorri dela, nahiz eta geroago jaso.

18. artikulua. Aurkaratzeko ahalmenei isilbidez uko egitea

Baldin eta alderdi batek, jakinik urratu egin dela erregelamendu honetan, gainerako araudi aplikagarrian edo arbitraje-hitzarmenean ezarritako betekizunen batean xedapen-arauren bat, arbitraje-hitzarmenean horretarako aurreikusitako epean edo, bestela, ahal bezain laster salatzen ez badu, erregelamendu honetan aurreikusitako aurkaratze-ahalmenei uko egin diela ulertuko da.

19. artikulua. Arbitraje-prozedura interpretatzea

Kasu zehatz bakoitzerako, arbitraje-prozedura arautzen duen araudiaren interpretazioari buruz sortzen diren arazo guztiak HKEEk berak ebatziko ditu, betiere aintzat hartuta entzunaldiaren, kontraesanaren eta alderdien arteko berdintasunaren printzipioak betetzen direla; hori guztia, baldin eta

arbitrajean agertutako alderdiek interpretatu beharreko gaiari buruz adosteko borondaterik ez badute.

20. artikulua. Zuzenketa
Alderdiek prozeduran egiten dituzten forma akatsak zuzendu ahal izango dira arbitrajea egiten duten pertsonek hala eskatuz gero, erabakitako epe berariazkoan, betiere hamar egun baino lehenago.

21. artikulua – Alderdien jarduerarik eza

Alderdien jarduerarik ezak ez du eragotziko laudoa ematea, eta ez dio eragingarritasunik kenduko.

22. artikulua. Aldi baterako etetea

Bat. Arbitraje-prozedura edozein unetan eten ahal izango da aldi baterako, honako kasu hauetan:

a) Alderdi guztiek berariaz hori egitea hitzartu dutenean epe jakin baterako, eta epe hori betiere bi hilabetekoa izango da gehienez.

b) Arbitroek hala erabakitzen dutenean, alderdiek aho batez aurkakoa erabaki ezean, gehienez ere bi hilabeteko epean eta erabaki arrazoitu baten bidez.

c) Frogak egiteko laguntza judiziala eskatzen denean, laguntza horrek iraun bitartean, eta, edonola ere, gehienez lau hilabeteko epean.

d) Prozeduran parte hartzen duen pertsona fisikoren bat hiltzen denean, heriotza egiaztatu duen edozein pertsonak eskatuta. Prozedura berrabiaraztea auzi ordezkapenari aplikatu beharreko araudia beteaz gauzatuko da.

e) Edonola ere, abuztu osoan zehar eta abenduaren 24tik urtarrilaren 7ra bitartean.

Bi. Aldi baterako etetea, aurreko e) letran aurreikusitako kausagatik izan ezik, berariaz erabaki beharko du KAEEk, eta laudoa emateko epea

automatikoki luzatzea ekarriko du, erabakitako aldi baterako etetearen denbora tarte berdinerako.

23. artikulua. Konfidentzialtasuna

Bat. Prozedura konfidentziala izango da. Horren ondorioz, aldeek, arbitrajea egiten duten pertsonek eta KAEE osatzen duten beste guztiek hitza eman dute auziarekin edo prozedurarekin zerikusia duten egitateak edo bestelako informazioak hirugarren alderdi batzuei ez zabaltzeko.

Bi. Nolanahi ere, KAEEk laudoen laburpenak argitaratu ahal izango ditu, bereziki haien oinarri juridikoei buruzkoak, betiere baldin eta arbitraje-prozeduran parte hartzen duten alderdiak zuzenean edo zeharka identifikatu ezin baditu.

II. KAPITULUA.

KIROL ARBITRAJEKO EUSKAL EPAIMAHAIA

24. artikulua. Ezaugarriak

KAEEri dagokio arbitrajearen mende jarritako gaiak ebaztea, laudo bat idatzita.

25. artikulua. Osaera

Bat. Kirol-arloan sortzen diren gatazkei buruzko laudoak edo ebazpenak emateko ardura jaso du KAEEk, eta honako hauek osatzen dute:

a) Kide titularra eta ordezkoa, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak izendatua.

b) Kide titular bat eta ordezko bat, EKFBk izendatua.

c) Kide titularra eta ordezkoa, kirol-zuzenbidean esperientzia egiaztatua duten legelariek izendatua, era berean Euskal Autonomia Erkidegoan egoitza duen unibertsitateetako batek izendatua.

Bi. KAEEk lehendakaritza eta idazkaritza aukeratuko ditu bere kideen artean.

26. artikulua. Kide izateko baldintzak

Bat. Beren eskubide zibilak bete-betean baliatzen ari diren pertsona fisikoak izan daitezke KAEEko arbitro, baldin eta beren lanbidea gauzatzean bete behar duten legeriak galarazten ez badie.

Bi. Zuzenbidean erabaki behar diren arbitrajeetan, arbitrajea arbitro bakar batek ebatzi behar duenean, legelari izaera eskatuko zaio arbitro gisa jarduten duen arbitroari; salbuespen moduan, baldin eta prozedurako alderdi guztiek berariaz onartzen badute, KAEEk baldintza hori betetzen ez duen pertsona bat izendatu ahal izango du.

Hiru. Arbitrajea KAEEk ebatzi behar duenean, arbitroetako batek gutxienez legelari izaera izan beharko du.

Lau. Inolaz ere ezingo dira KAEEko kide izan jardunean dauden orain epaile, magistratu, edo fiskal karguan ari direnak, ezta muga-zerga bidez ordaindutako funtzio publikoak betetzen dituztenak ere. Bestalde, alderdiei edo arbitrajearen xedeari dagokienez, ezin izango dute arbitro gisa jardun parte ez hartzeko edo errefusatzeko arrazoi gisa erregelamendu honen 27. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean daudenek. Era berean, ezin izango dute arbitro gisa jardun erantzukizuna guztiz bete ez dutenek, baldin eta arbitraje-eginkizunak lehenago bete izanak erantzukizun hori judizialki adierazi badu.

Bost. Nolanahi ere, arbitrajea egingo duten pertsonak epailearen aurrean izendatu edo kargutik kentzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko Arlo Zibileko eta Zigor Arloko Salak izango du, 60/2003 Legearen 8. artikuluaren 1. paragrafoaren arabera, aintzat hartuta 11/2011 Legearen idazketa berria.

27. artikulua. Abstentzioa eta errekusatzea

Bat. Arbitroen inguruan, abstenitzeko eta, hala erabakiz gero, errekusatzeko arrazoi izango dira honako hauek:

a) Arbitraje-prozeduran parte hartzen duen edozein alderekin edo horien ordezkariekin ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailako odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna izatea.

b) EKFBko Zuzendaritza Batzordeko edozein kiderekin ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta laugarren mailako odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna izatea.

c) Alderdietatik edozeinen defendatzaile judiziala edo erakunde babesleetako kidea izatea, edo aldeetakoren baten edo haren ordezkarien zaintzapean edo babespean egotea.

d) Delitu edo falta baten erantzule gisa aldeetako batek edo haren ordezkariek salatua izatea.

e) Aldeetako baten defentsa edo ordezkari lanetan aritu izana, auziari buruzko irizpena eman izana abokatu gisa, edo auzian fiskal, aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.

f) Aldeetako edozeinen edo haren ordezkarien salatzailea edo alde akusatzailea izatea une horretan edo beste noizbait.

g) Aldeetako batekin edo haren ordezkariekin auzitan egotea

h) Aldeetako edozeinekin edo horien ordezkariekin adiskidetasun estua edo ageriko etsaitasuna izatea.

i) Arbitraje-prozeduran zuzeneko edo zeharkako interesa izatea.

j) Prozedura beraren instrukzioa beste instantziaren batean egin izana.

k) Aldeen arteko gatazka berean bitartekari gisa esku hartu izana, baldin eta alderdiek kontrakorik adostu ez badute.

l) Auziko gatazka ebatzi behar duten arbitroen mendeko aldeetako bat edo horien ordezkariak izatea.

m) Gatazka aldeetako baten edo haren ordezkarien mendeko gisa ebatzi behar duten arbitroak izatea.

n) Eta, oro har, alderdi edo ordezkariekin harreman profesionala edo komertziala izatea, bai eta izendatu aurreko urtean izanda ere.

Bi. Arbitroek nahitaez jakinarazi behar dizkiete EKFBri eta alde bakoitzari errefusatzea eragin dezaketen inguruabarrak, horiek ezagutu bezain laster, nola arbitroak onartu aurretik, hala onartu ondoren.

Hiru. Arbitro bat ezesten duen aldeak arrazoiak azalduko ditu onarpenaren berri izan eta hurrengo hamar egunen barruan, edo arbitro horren inpartzialtasunari edo independentziari buruzko zalantza justifikatuak eragin ditzaketen inguruabarretatik edozeinen berri izan eta hurrengo hamar egunen barruan. Errefusatutako arbitroak bere karguari uko egiten ez badio edo beste aldeak errefusatzea onartzen ez badu, KAEEko presidenteari egokituko zaio ebazpena ematea, errefusatzea jaso eta hamar eguneko epearen barruan.

Lau. Planteatutako ezespenak aurrera egiten ez badu, alderdi errekusatzaileak ezespena balia dezake laudoa aurkaratzean.

28. artikulua. Ordezkatzea

Bat. Baldin eta arbitroaren ezintasuna, heriotza, gaixotasuna, uko egitea, errefusatzearen eraginez lanpostutik mugiaraztea edo beste edozein arrazoi eraginkor gertatu bada, aurreko pertsona ordezkatuko duen ordezkoa arituko da. Ordezkatze hori alde guztiei jakinaraziko diete.

Bi. Ordezkapena egin ezin bada, beste norbait izendatuko da, erregelamendu honen 25. artikulua aintzat hartuta.

Hiru. Ordezkoa izendatu ondoren, arbitroak edo arbitraje-elkargoak, alderdiei entzun ondoren, ordurako gauzatutako jarduketak errepikatzea bidezkoa den erabakiko dute.

29. artikulua. KAEE osatzea

Bat. Arbitrajea KAEEk ebatziko du, arbitraje-elkargo gisa eratuta, edo arbitro bakar batek.

Bi. Arbitraje-elkargoa eratu ahal izateko, arbitro guztiak bertan izan beharko dira.

Hiru. Arbitraje-elkargoak edozein kideri eskuordetu ahal izango dio prozedura izapidetzeko edozein egintza gauzatzeko eskumena. Aurrekoari kalterik eragin gabe, lehendakariak bere kabuz erabaki ahal izango ditu prozedura antolatu, izapidetu eta bultzatzeko kontuak.

Lau. Arbitraje Elkargoak kideen gehiengoz hartuko ditu erabakiak.

30. artikulua. Kautelazko neurriak hartzeko arbitroen ahalak

Bat. KAEEk edo edozein alderdik eskatuta arbitro bakar izendatu den pertsonak gatazkari buruz beharrezkotzat jotzen dituen kautelazko neurriak hartuko ditu; nolanahi ere, behar besteko kauzioa eskatu ahal izango diote eskatzaileari.

Bi. Arbitraje-erabaki horiei aplikatuko zaizkie laudoak nahitaez deuseztatzeari eta betearazteari buruz legean aurreikusitako arauak.

III. KAPITULUA

Arbitraje-prozedura interpretatzea

31. artikulua. Arbitraje-eskaera

Bat. Aldeetako batek arbitraje-eskaera idatziz aurkeztu beharko du EKFBren egoitzan, eta horrek KAEEri formalki igorriko dio, jarduketekin jarraitzeko.

Bi. Arbitraje-eskaera horretan honakoak aipatu beharko dira gutxienez:

a) Auzia EKFBren arbitrajearen mende jartzeko berariazko eskaera.

b) Aldeak identifikatzeko datuak, hau da, izen-abizenak edo elkartearen izena, jakinarazpenak egin ahal izateko helbidea eta, dagokionean, alderdien ordezkaritza, erregelamendu honen 15. artikuluarekin bat etorriz egiaztatu beharko dutena.

c) Konpromiso-klausularen edo arbitraje-hitzarmenaren aipamena, erregelamendu honetan aurreikusitako edozein modutan, eta haren kopia bat.

d) Arbitrajearen mende jarritako gorabeheraren jatorrizko harreman juridikoaren deskribapen laburra; bertan adieraziko dira adierazitako formulatutako uzi guztien zenbatekoa, zehaztuta badago, edo, gutxienez, zehaztu daitezkeen haiena.

e) Tokia, data eta sinadura.

32. artikulua. Eskaeraren zuzenketa

Bat. Eskaerako idazkiak aurreko artikuluan adierazitako baldintzetakoren bat betetzen ez badu, edo oharretako bat osatu gabea edo nahasgarria bada, gehienez ere hamar eguneko epea emango zaio alderdi demandatzaileari akats horiek zuzentzeko.

Bi. Horrela egiten ez badu, eskaera artxibatzea erabaki ahal izango da, gabeziek tramitazioa edo tramitatzen jarraitzea eragotziz gero.

33. artikulua. Arbitrajea tramitera onartzea eta egingo duten pertsonak izendatzea.

Bat. KAEEren presidentetzak arbitraje-prozedura tramitatuko du, eta onartu egingo da, baldintza hauetakoren bat betetzen bada:

a) Bi alderdien mendekotasuna baliozkoa eta nahikoa izatea, arbitraje-hitzarmen baten bidez.

b) Arbitraje-hitzarmenik ez dagoenean, alderdiek berariaz onartzea arbitrajea. Ondorio hauetarako, eskaria egitean eskatzaileak arbitrajea onartu egiten duela esan nahiko du. Beste alderdiak berariaz onartu beharko du eskariaren berri eman ondoren, eta hamar eguneko epean egoki iritzitakoa alegatzeko aukera izango du. Hitzarmena formalizatuko ez balitz, presidentetzak ebatziko du prozedura tramitera ez onartuz.

Bi. KAEEk modu frogagarrian jakinaraziko die alderdiei prozedura izapidetzeko onartu dela.

34. artikulua. KAEEren ahala bere eskumenaz erabakitzeko

Bat. Prozedura tramitera onarturik, aldeetako batek hitzarmen arbitrala salatzen badu, KAEEk auzi honi buruzko ebazpena eman beharko du laudoan, arrazoiak emanda. Era berean, KAEEk laudoan ebatzi beharko ditu prozeduran planteatu daitezkeen salbuespenak, aurrez ere egin dezakeen arren laudo baten bidez.

Bi. Aurreko atalean aipatzen diren salbuespenen aurka egin beharko da, beranduenez, erantzuna aurkezten denean, eta arbitrajea egingo duten pertsonak izendatu izanak edo izendapenean parte hartzeak ez du eragotziko pertsona horiei aurka egitea. KAEEk bere eskumenen esparrua gainditzen duenean egiten den salbuespena, arbitroen jarduketetan esparru horretatik kanpo dagoen gaia planteatu bezain laster egin beharko da.

Hiru. KAEEren erabakia inpugnatzeko, erabakia hartu den laudoa deuseztatu beharko da nahitaez. Erabakiak salbuespenak ezesten baditu eta aurrez hartzen bada, deuseztatzeko ekintzak ez du arbitrajeko prozedura etengo.

35. artikulua. Arbitrajearen hasiera eta agerraldi fakultatiboa

Bat. Arbitraje-hitzarmena dagoenean, arbitrajearen hasierako datatzat hartuko da prozedura tramitera onartu dela jakinarazteko eguna. Gainerako kasuetan, alderdiek besterik adostu ez badute, alderdi demandatuak eztabaida arbitrajera eramateko errekerimendua jaso duen eguna izango da haren hasierakoa.

Bi. KAEEk agerraldira batera dei ditzake alderdiak aurrez, arbitrajean aurrera egiteko garrantzizko gaiez aritzeko eta eztabaidari buruz akordio batera iristeko eskatuko zaie.

36. artikulua.- Demandako idatziak eta erantzuna

Bat. KAEEk demandatzaileari eskatuko dio hamabost eguneko epean demanda eta frogako proposizioa idatziz aurkez ditzala eta adieraz ditzala eztabaidaren oinarrizko egitateak, izaera eta gorabeherak eta formulatzen dituen asmoak eta horien zenbatekoak, ahal izanez gero.

Bi. KAEEk demanda-idazkia jaso ondoren, alderdi demandatuari igorriko dio, harekin batera aurkeztutako dokumentazioarekin batera, hamabost eguneko epean erantzun-idazkia eta froga-proposamena aurkez ditzan. Hori guztia alderdi demandatzaileari helaraziko zaio.

Hiru. Demanda- eta erantzun-idazkiekin batera, eta egoki iritzitako beste edozein frogabide proposatzeari kalterik egin gabe, alderdiek beren defentsarako beharrezkotzat jotzen dituzten agiri guztiak aurkeztu beharko dituzte.

Lau. Alderdi demandatuak, egoki baderitzo, erantzun-idazkian demanda egin ahal izango du, alderdi demandatzailearen aurka beste asmo batzuk aurkeztuz. Kasu horretan, KAEEk erantzun-idazkia helaraziko dio alderdi demandatzaileari, errekonbentzioaren uziei hamabost eguneko

epean erantzun diezaien eta horri buruzko frogak proposatu edo aurkez ditzan. Uziak eraldatu edo zabalduz gero, berariaz adierazi beharko da.

Bost. Aurkeztuko dituzten idatzi eta agiri guztien jatorrizkoak eta kopia (alderdiak adina ale) aurkeztu beharko dituzte alderdiek nahitaez.

37. artikulua. Froga egitea

Bat. Proposatutako frogak egin ala ez erabaki ahal izango du KAEEk, eta zuzenbidean bidezkoak, erabilgarriak eta onargarriak iruditzen zaizkienak egingo ditu, erabakitzen duten moduan. Halaber, KAEEk ofizioz erabaki ahal izango du komenigarritzat jotako frogak egitea edozein unetan.

Bi. Frogako praktika orotan, alderdietako batek edo hirugarren batek agiriak aurkezten ez baditu, aipatu egingo dira eta alderdiek edo haien ordezkariek arbitrajean parte hartu ahal izango dute.

Hiru. Lekukotza-froga izanez gero, alderdi bakoitzak KAEEri jakinaraziko dizkio aurkeztu nahi diren lekukoen izenak eta helbideak. KAEEk askatasun osoa izango du pertsona horiek zitatzeko edo galdetzeko modua erabakitzeko, dagokionean galdeketa egiteko modua erabakitzeko ere bai, edo aitorpenak idatziz eta behar bezala sinatuta aurkez ditzaketen erabakitzeko.

Lau. KAEEk arbitrajea egiten den lekuko lehen auzialdiko epaileari laguntza eskatu ahal izango dio. Frogak bere jurisdikziotik kanpo egiteko laguntza jurisdikzionalaren kasuetan, KAEE idatziz zuzenduko zaio zitazio judiziala egin behar den tokiko lehen auzialdiko epaileari edo froga-eginbidea aginduko da. Azken horrek, lehenengo kasuan bezala, Prozedura Zibilari buruzko Legearen arauekin bat etorriz jardungo du, eskatutako froga bere zuzendaritzapean egingo du, KAEEk eskatzen badio eta jarduketen lekukotza emango dio eskatzaileari.

Bost. Frogak egiteko epea hogeita hamar egunekoa izango da, eta KAEEk luzatu egin ahal izango du, komenigarritzat jotzen badu, eskatutako probetakoren bat egitea ezinezkoa bada. Epe hori ez zaie aplikatuko laguntza judizialaren bidez egin behar direnei.

Sei. Frogak egiteko aurreko gehieneko epeari kalterik egin gabe, KAEEk epe laburragoa ezarri ahal izango du, bai alderdiek eskatutakoak egiteko, bai ofizioz erabakitakoak egiteko, baldin eta, bete beharreko proben erraztasunagatik, hori egitea posible eta komenigarria dela uste badu.

Zazpi. KAEEk alderdiei igorriko dizkie egindako froga guztiak.

38. artikulua. Aldeak ez agertzea

Aldeek besterik erabaki ezean, KAEEren iritziz arrazoi aski alegatu gabe:

a) Alderdi demandatzaileak bere demanda epearen barruan aurkezten ez badu, KAEEk bukatutzat emango ditu jarduketak, non eta, alderdi demandatuari entzun ondoren, honek ez duen adierazten uziren bat erabili nahi duela.

b) Alderdi demandatzaileak epe barruan erantzunik aurkezten ez badu, KAEEk jarduketekin jarraituko du, eta ez-egite hori ez da alderdi demandatzaileak alegatutako egitateak amore eman edo onartzeko modutzat hartuko.

c)Alderdietako bat entzunaldi batera agertzen ez bada edo froga edo ondoriorik aurkezten ez badu, KAEEk jarduketekin jarraitu ahal izango du eta laudoa eman ahal izango du, dituen probetan oinarrituta.

39. artikulua. Arbitroek perituak izendatzea

Bat. Alderdiek besterik adosten ez badute, KAEEk, ofizioz edo alderdi batek eskatuta, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak zehaztutako zerrendako peritu bat edo gehiago izenda ditzake, gai zehatzei buruzko irizpena eman dezaten, eta edozein alderdiri eska diezaion, peritajeko prozesuari dagokion informazio guztia eman dezala, agiri edo objektu egoki guztiak aurkez ditzala edo haietarako sarbidea eman dezala.

Bi. Alderdiek besterik adosten ez badute, alderdi batek hala eskatzen duenean edo KAEEk beharrezkotzat jotzen duenean, peritu orok, irizpena aurkeztu ondoren, entzunaldi batean parte hartu beharko du eta KAEEk

eta alderdiek (beren kabuz edo peritajeko adituen laguntzaz) galdeketa egin ahal izango diote.

Hiru. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa gorabehera, alderdiek ahalmena izango dute, besterik erabaki ezean, izendapen libreko perituen irizpenak aurkezteko.

40. artikulua. Ondorioak.

Bat. Frogaldia amaitu dela KAEEk alderdiei jakinarazten dienetik edo, halakorik ez bada, erantzuneko idazkia jaso eta berehala, KAEEk prozedurako alderdi guztiei eskatuko die ondorioak aldi berean aurkezteko, hamabost eguneko epean.

Bi. Aurreko puntuan ezarritakoari kalterik egin gabe, KAEEk, hobeto argitzeko, alderdiei dei egin ahal izango die ondorioak pertsonalki entzuteko eta alderdiek ondorioak aurkeztu ondoren.

41. artikulua. Hobeto arbitratzeko eginbideak

Bat. KAEEk, alderdien ondorioak ezagututa, ofizioz, eta salbuespenez, beharrezkotzat jotzen dituen frogak agindu eta egin ahal izango ditu, eta zergatik egin behar diren arrazoitu.

Bi. Frogak egin ondoren alderdiei jakinaraziko zaizkie, bost eguneko epean emaitzari buruzko ondorio berriak atera ditzaten. Betiere, berdintasun-, entzunaldi- eta kontraesan-printzipioak errespetatuko dira, prozedura osoan bezala.

42. artikulua. Prozeduraren amaiera

Bat. Ondorioak aurkezteko epea amaitutakoan, KAEEk laudoa emango du, erregelamendu honetako eta Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legean, aurrekoa aldatzen duen 11/2011 Legean eta erregelamendu honetan ezarritako arauen arabera.

Bi. Arbitroen jarduketetan, alderdiak ados jartzen badira eztabaidari amaiera emateko, osorik edo zati batean, KAEEk bukatutzat emango ditu

adostutako puntuen inguruko jarduketak, eta, bi alderdiek hala eskatzen badute eta KAEEk ez badu aurka egiteko arrazoirik ikusten, laudoa egingo du, alderdiek adostutako moduan. Laudo horrek auziaren gainean agindutako beste edozein laudoren eraginkortasuna izango du.

Hiru. KAEEk jarduketak amaitzeko aginduko du kasu hauetan ere:

a) Alderdi demandatzaileak demandari uko egiten dionean, non eta alderdi demandatuak ez dion aurka egiten eta arbitroek interes legitimoa aitortzen dioten auziaren behin betiko konponbidea lortzeko.

b) Jarduketak amaitzea erabakitzen dutenean alderdiek.

c) KAEEk egiaztatzen duenean jarduketekin jarraitzea ezinezkoa dela edo ez dela beharrezkoa.

Lau. Artikulu honetan aipatzen diren kasuetan, KAEEk prozedura bukatu arte egondako gastuei buruzko erabakia hartuko du.

43. artikulua. Laudoaren baldintzak

Bat. Laudoa idatziz emango da, eta, gutxienez, alderdi hauen berri emango du: alderdien egoera pertsonala, non eman den, arbitrajearen pean jarritako auzia, egindako proben zerrenda laburra, alderdien alegazioak eta arbitrajearen erabakia, gastuak eta arbitrajean egindako egozpena. Ondorio horietarako, laudoa idatziz jasota dagoela ulertuko da haren edukia eta sinadurak jasota geratzen direnean eta euskarri elektronikoan, optikoan edo bestelako euskarrian kontsultatzeko moduan daudenean ondoren kontsultatzeko.

Bi. Laudoa, nahiz zuzenbidezko nahiz ekitatezko arbitrajea izan, arrazoitu egin beharko da, alderdiek adostutako moduan emandako laudoa ez bada behintzat.

Hiru. KAEEko arbitro guztiek sinatuko dute laudoa. Laudoarekin ados ez dagoenak bere desadostasuna adierazi ahal izango du. Horrelakoetan nahikoa izango da KAEEko kiderik gehienen sinadura, sinadura bat zergatik falta den arrazoitzen bada.

Lau. Hasierako edo errekonbentzioko demandari erantzuna aurkeztu edo hura aurkezteko epea amaitu eta hurrengo sei hilabeteetan erabakiko du laudoak eztabaida. Alderdiek besterik erabaki ezean, gehienez ere bi hilabetez luzatu ahal izango dute arbitroek epe hori, arrazoitutako erabakiaren bidez. Hala ere, erregelamendu honen 22. artikuluan aurreikusitako aldi baterako etenaldia egonez gero luzatu egingo da, aldi baterako etenaldiaren epe berean.

Bost. Alderdiek besterik erabaki ezean, epea behin betiko laudorik eman gabe bukatzeak ez du eraginik izango haren eraginkortasunean edo balioan, KAEEk izan dezakeen erantzukizunaren kalterik gabe.

44. artikulua. Jakinarazpena eta protokolazioa

KAEEk laudoaren berri emango die alderdiei, sinatutako ale bana emanez, 43. artikuluko hirugarren atalean xedatuarekin bat etorriz eta bertan ezarritako epean.

45. artikulua. Laudoa zuzendu, argitu, osatu eta zuzentzea

Bat. Laudoa jakinarazi eta hamar eguneko epean, alderdiek beste eperen bat adostu ezean, bietako edozeinek, besteari jakinarazita, honako hauek eskatu ahal izango dizkio KAEEri:

a) Kalkuluko akatsak, kopiakoak, tipografikoak edo antzekoak zuzentzeko.

b) Laudoko puntu bat edo zati jakin bat argitzeko.

c) Laudoaren osagarria emateko, egin arren ebatzi gabe geratutako eskaerei dagokienez.

d)Laudoaren hein bateko muga-gaindiketa zuzentzeko, bere erabakiaren mende ez dauden gaiei edo arbitrajerik ez duten gaiei buruz ebatzi denean.

Bi. Gainerako alderdiei entzunaldia eman ondoren, KAEEk akatsak zuzentzeko eta argitzeko eskabideak hamar eguneko epean ebatziko ditu, eta osatzeko eta zuzentzeko eskabideak, hogei eguneko epean.

Hiru. Laudoa egin eta hurrengo hamar egunen barruan, arbitroek ofizioz zuzendu ahal izango dituzte Bat atalean aipatutako akatsak, azalpenak, osagarriak eta/edo zuzenketak.

Lau. Laudoaren zuzenketa, azalpen, osagarri eta zuzenketari buruzko ebazpen arbitralei 44. artikuluan xedatua aplikatuko zaie.

46. artikulua. Deuseztatzea

Bat. Laudoa deuseztatu ahal izateko, deuseztapena eskatzen duen alderdiak honako hauek alegatu eta frogatu beharko ditu:

a) Arbitrajeko hitzarmenik ez dagoela edo ez dela baliozkoa.

b) Jarduketa arbitralak ez zaizkiola behar bezala jakinarazi edo, beste edozein arrazoirengatik, ezin izan dituela bere eskubideak baliarazi.

c) KAEEk bere mendekoak ez diren gaiei buruz ebatzi duela.

d) Arbitraje-prozedura ez datorrela bat alderdien arteko akordioarekin, non eta akordio hori Arbitrajeari buruzko 60/2003 Legearen edo aurrekoa aldatzen duen 11/2011 Legearen aginduzko arau baten aurkakoa den, edo, akordiorik ezean, ez den lege horietara egokitu.

e) KAEEk bere mendekoak ez diren gaiei buruz ebatzi duela.

f) Ordena publikoaren aurkakoa dela laudoa.

Bi. Kasu guztietan, 60/2004 Legeak (11/2011 Legeak aldatuak) ezarritakoaren arabera izapidetuko da deuseztatze-ekintza. Nolanahi ere, demandarekin batera aurkeztu beharko dira uziaren frogagiriak, arbitraje-hitzarmena eta laudoa, bai eta egin nahi diren frogabideak ere.

Hiru. Laudoa deuseztatzeko ekintzaren berri izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Zibileko eta Zigor arloko Salak izango du eskumena.

47. artikulua. Laudoaren ondorioak

Laudo irmoak gauza epaituaren ondorioak sortzen ditu, eta haren aurrean baliogabetze-ekintza eta, hala badagokio, berrikuspen-ekintza soilik gauzatu ahal izango dira, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legean epai irmoetarako ezarritakoaren arabera.

48. artikulua. Laudoa betetzea

Erregelamendu honetan araututako arbitraje-prozeduran parte hartzen duten alderdi guztiek onartu eta ontzat ematen dute horren ondoriozko laudoa, eta bete egin behar dute.

49. artikulua.- Laudoak edo arbitraje-ebazpenak nahitaez betearaztea

Laudoak edo arbitraje-ebazpenak nahitaez betearazteko, epaia eman den lekuko Lehen Auzialdiko Epaitegiak izango du eskumena, Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 545. artikuluaren 2. paragrafoan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

IV. KAPITULUA

PROZEDURA LABURTUA

50. artikulua.- Suposizioak

Bat. Alderdi batek eskaturik edo ofizioz, KAEEko presidentetzak arbitrajea kapitulu honetan araututako prozedura laburtuaren arabera tramitatzea erabaki dezake, inguruabar hauetako bat gertatzen denean:

a) Bi alderdiek berariaz eskatzen badute.

b) Auziaren zenbatekoa sei mila (6.000) euro baino gehiagokoa ez bada.

c) Informazio eskubidea indarrean dagoen legeriak araututakoaren esparruan erabili nahi bada soilik.

d) Prozedura honi jarraitzea gomendatzen duen presa dagoela ikusten bada, nekez konpondu daitezkeen edo konpondu ezin diren kalteak, zenbatekoa edozein dela ere.

Bi. Nolanahi ere, sozietatearen erabakiak inpugnatzeko prozedurak ezingo dira tramitatu kapitulu honetan araututako prozeduraren arabera.

51. artikulua.- Pertsona arbitro bakarra

Kapitulu honetan araututako prozeduraren arabera egiten diren arbitrajeetan, Auzitegiko presidentetzak berak esleituko dio ebazpena KAEEko arbitroetako bati.

52. artikulua.- Arbitraje-eskaera

Bat. Prozedura laburtua EKFBri idatziz aurkeztutako eskabidearen bidez hasiko da, eta nahitaez honako hauek jaso beharko ditu:

a) Arbitraje-mota, erregelamendu honen 10. artikuluko bigarren idatz-zatian xedatutakoaren arabera.

b) Erregelamenduko 31. artikuluan eskatutako informazioa.

c) Demanda-idazkia, erregelamenduaren 36. artikuluan aurreikusitako moduan, uzien oinarriko dokumentu eta froga-elementuekin, prozeduran zehar aldatu edo hedatu ezin direnak, eta, hala badagokio, aurkeztu ezin diren eta ezinbestekoak diren beste froga-elementu batzuk proposatzea. Horiek arbitroak erabaki ditzake.

Bi. Arbitrajea eskatu duen alderdiak, arbitroarentzako alearekin batera, alderdi demandatuak adina kopia aurkeztu beharko ditu demandarenak eta aurkeztutako gainerako agirienak.

Hiru. Aurkako alderdiari galdeketa egin nahi zaionean edo lekuko bidezko froga erabili nahi denean, arbitroak erabakiko du froga-elementu horien jatorria.

Lau. Alderdi demandatzaileak lekukotza-froga proposatzen duenean, hari dagokio arbitroaren aurrean lekuko gisa proposatutako pertsonak aurkezteko betebeharra, arbitrajea egiten duenak horretarako adierazten duen tokian, egunean eta orduan. Betebehar bera izanen du alderdi demandatuak, demandari erantzutean proposa ditzakeen lekukoei dagokienez.

Bost. Nolanahi ere, lekukotza-froga proposatzean, bai alderdi demandatzaileak bai demandatuak adierazi beharko dute zein den lekukoen eta arbitrajepean jarritako eztabaidaren xede diren gertakarien arteko harremana, eta zein arrazoirengatik den bidezkoa adierazpena onartzea.

53. artikulua.- Onarpena

Bat. Eskaera jaso ondoren, EKFBko presidentetzak aztertuko du 50. artikuluan aurreikusitako kasuren bat eta aurreko artikuluan eskatutakoa gertatzen ote den, eta dagokion erabakia hartuko du, gehienez ere 7 eguneko epean, eskaera sartzen den egunetik zenbatzen hasita. Jarduketak KAEEra bidaliko ditu, eta haren presidentetzak izendatuko du arbitroa gehienez ere 5 eguneko epean. Presidentetza duen pertsona bera izan daiteke arbitroa.

Bi. Presidentetzak erabakiko balu arbitrajea hitzezko prozeduraren arabera bideratuko dela, behar den ebazpena jakinaraziko zaie alderdiei, ebazpena hartu eta gehienez ere 7 eguneko epean.

Hiru. Presidentetzak erabakiko balu arbitrajea prozedura laburtuaren bidez ez dela bideratuko, eskatzaileari jakinaraziko dio, aurrez araututako epeen barruan, hark, hala badagokio, 7 eguneko epean ohiko prozeduraren bidez izapidetzeko eskatu ahal izan dezan.

54. artikulua. Errekonbentzioa

Bat. Demandatuak, egoki iritziz gero, idatzi bidez egin dezake errekonbentzioa demandatzailearen aurka beste uzi batzuk formulatuz, errekonbentzioaren uzien eta eta demanda nagusiaren xede direnen artean lotura badago. Idatzia arbitroari igorriko zaio zitazioa jaso eta 15 eguneko epean, betiere ikustaldirako aurreikusitako data baino 10 egun lehengo, eta hala egiten ez bada, ez aurkeztutzat hartuko da.

Bi. Arbitroari zuzendutako errekonbentzioko idatziarekin eta gainerako agiri osagarriekin batera, demandatzaileak adina kopia eman beharko dira.

Hiru. Demandatuak bere demanda-errekonbentzioa arrazoitzeko proposamena eta aurkeztutako frogak, prozedura honetan eskari nagusirako ezarritako arauen mende egongo dira.

Lau. Errekonbentzio idatzia jasotakoan arbitroak zitazio berria igorriko die bi alderdiei; zitazio hori hasieran aurreikusitako berdina izan daiteke eta hala ez bada ere, aurrekoa baino 10 egun beranduago egin ahal izango da gehienez. Dena dela, demandatzaileari igorriko zaion zitazio berriari errekonbentzioaren idatziaren eta erantsitako agirien kopia gehitu beharko zaizkio.

Bost. Errekonbentzioa egonez gero, alderdi demandatzaileak egoki deritzona adierazi ahal izango du errekonbentzio horretan jasotako asmoari buruz, bai eta froga gisa erabili ere, eskabide-agirian sartu ez arren, egoki iritzitako elementuak, arbitroak bidezkotzat jotzen baditu. Proposamena egin duen alderdiari dagokio froga-elementu horiek Ikustaldira aurkezteko betebeharra.

55. artikulua. Ikustaldia eta froga

Bat. Arbitroak gehienez ere 10 eguneko epea izango du arbitroaren onarpen- eta izendapen-ebazpena jasotzen duenetik, prozesuaren ikustaldia egiteko, eta probak egitea bidezkoa den ala ez adieraziko du. Alderdi demandatuari adieraziko dio zitazioa jaso eta hurrengo zazpi eguneko epean ohartarazi behar duela, berak aurkezteko aukerarik ez

izateagatik, epaileak ikustaldira deitu behar dituen pertsonak, alderdi edo lekuko gisa deklara dezaten edo espedientean sar daitezen. Horretarako, alderdi demandatuak zitazioa eta errekerimendua egiteko behar diren datu eta inguruabar guztiak emango dizkio arbitroari.

Bi. Alderdi demandatuari zitazioa egitean, arbitraje-eskabidearen edukiaren eta erantsitako agirien kopia emango zaio, halako agiririk bada.

Hiru. Ikustaldian alderdiek beraien eskubideei dagokiena eta nahi dutena azalduko dute, eta jarraian frogak praktikatuko dira, arbitroak egoki iritzi eta aurkeztu badira, eta espedientean sartuko dira agiri horiek guztiak.

Lau. Froga onartuz gero, arbitroak beharrezkoa izango du ikustaldian froga hori egiteko eta horren tramitazioa zitazioa igortzen denetik 30 eguneko epean egingo da gehienez.

Bost. Arbitroak, salbuespenetan, beharrezko beste froga batzuk egitea erabaki dezake arrazoituta, baita adierazitako epea luzatzea ere. Horrelakoetan, edo unean bertan egin ezin diren frogak onartuz gero, Ikustaldiaren biharamunetik 10 eguneko epean ebaluatuko dira, arbitroak ziodun erabaki bidez epe hori luzatzea erabakitzen ez badu. Era berean, froga horiek egin beharra egonez gero, arbitrajea egiten ari denak adieraziko du ikustaldian noiz egingo den ikustaldi berri bat lehenengo frogaren ondorengoak egiteko edota analizatzeko.

Sei. Frogak egindakoan arbitroak hitza emango dio alderdi bakoitzari, ahoz eta zehatza azaldu ditzan ondorioak. Emaitzaren akta egingo du, bildutako guztiek sinatuko dute, bertaratutako alderdiei kopia bat emango zaie eta -dagokionean- beste kopia bat igorriko zaie bertaratu ez direnei 3 eguneko epean. Ikustaldia eta akta bera formatu elektronikoan jaso daitezke arbitroak hala erabakiz gero.

Zazpi. Demandatutako alderdia ikustaldira agertzen ez bada ere, arbitraje-prozedurak jarraitu egingo du eta gatazka-auzia arbitroaren esku jarriko da; demandatzailea bada agertu ez dena, demanda atzera bota duela esan nahiko du.

56. artikulua.- Laudoa

Bat. Arbitroak ondorioak entzun ondoren laudoa agindu dezake hurrengo ikustaldian edo ikustaldia amaitu biharamunetik hasi eta gehienez ere 10 eguneko epean igorri dezake.

Bi. Alderdiek besterik erabaki ezean, arbitroak laudoa emateko epea luzatu ahal izango du, arrazoiak emanda, auziaren xede den kasuaren inguruabar zehatzak kontuan hartuta, gehienez ere 7 egunez.

57. artikulua.- Ordezko arauak

Kapitulu honetan espresuki arautzen ez diren prozedura honi buruzko gai guztietan, erregelamendu honetan prozedura arruntari eta arbitrajeko laudoari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira, ordezko gisa.

V. KAPITULUA

PRESAZKO PROZEDURA

58. artikulua. Eskumena

Bat. Premiazko arrazoiak direla medio, eta parte hartzen duten alderdiek aldez aurretik erabakita, presazko prozedura erabili ahal izango da, arrazoiak emanda eta salbuespenez.

Bi. KAEEk zehaztuko du kasu bakoitzerako prozedura, erregelamendu honetako IV. Kapitulua eta ondorengo artikulua oinarri hartuta.

59. artikulua. Ezaugarriak

KAEEk arbitroaren onarpenaren berri emango die alderdiei, eta entzunaldira dei egingo die alderdi guztiei, gutxienez 48 ordu lehenago eta gehienez 7 egun lehenago. Entzunaldian alderdiek alegazioak egingo dituzte, frogak praktikatuko dira eta ondorioak formulatuko dira. Laudoa entzunaldian bertan ematen ez bada, gehienez ere 7 eguneko epean emango da.

VI. KAPITULUA

ARBITRAJEKO GASTUAK

60. artikulua. Arbitraje-zerbitzuaren doakotasuna

Bat. EKFBren arbitrajea doakoa izango da Batzar Nagusiak adosten zuen zenbatekora arte. Doakoa ez den dena alderdiek ordaindu beharko dute, laudoan ezarritakoaren arabera. Prozedura laburtuak doakoak izango dira beti alderdientzat.

Bi. Laudoak erabakiko du, halaber, arbitrajearen jarduketari berari ez dagozkion eta EKFBk bere gain hartu ez dituen gastu behar bezala justifikatuei buruz. Era berean, laudoak alderdien ordezkarien ordainsariei buruzko iritzia eman ahalko du, bertaratuz gero.

61. artikulua. Administrazioko tasak

Bat. EKFBko batzar nagusiak administrazioko tasak ezar ditzake eta arbitraje-eskaera onartu aurretik ordaindu beharko dira.

Bi. Arbitroek beren laudoan jasanarazi ahal izango dizkiote administrazio tasak ordaindu ez duen alderdiari, arrazoiak emanda.

62. artikulua. Gastuen banaketa

Bat. Alde bakoitzak bere eskabideko gastuak eta baterakoak ordaindu beharko ditu, zati berdinetan, non eta KAEEk ez duen ikusten horietako batean asmo txarra edo ausarkeria. Azken kasu horretan, gastuen banaketa laudoan zehaztuko da, KAEEren irizpideen arabera. Era berean, eta doakotasun-printzipioaren salbuespen gisa, fede txarreko edo ausarkeriazko kasu horietarako, arbitroak erabaki ahal izango du EKFBk balioetsitako bere esku-hartzearen kostua alderdi kondenatuak ordaintzea.

Bi. Nahiz alderdiek egindako gastuak banatzeko, nahiz arbitroaren esku-hartzearen kostua doakoa izateko, asmo txarra edo ausarkeria ez da

adierazitako gertaeretatik eta erreklamatutakoaren oinarrietatik soilik eratortzen, baizik eta erreklamazioaren xede kontzeptuak edota zenbatekoak neurriz kanpokoak izatetik ere bai.

Hiru. Prozeduran atzera eginez gero, erabaki horren ondorioz KAEEk emango duen ebazpenak gastuen banaketa zehaztuko du, aurreko Bat zenbakian adierazitako arauen arabera, non ez den alderdien arteko adostasunik.

Lau. Etenduraren egonez gero, banaketa behin-behinekoa izango da laudo bidez prozedura amaitzen ez den bitartean eta orduan ezarriko den behin betiko banaketa behin-behinekoaren berdina edo bestelakoa izan daiteke, non ez den alderdien arteko adostasunik.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

EKFBk, KAEErekin lankidetzan, kirol-bitartekaritza sustatuko du sustapen- eta hedapen-politika aktiboen bidez, bai eta bitartekariak prestatzeko ikastaroen bidez ere Euskal Autonomia Erkidegoan kirolarekin zerikusia duten esparru guztietan, KAEEk kirol-bitartekaritzan har ditzakeen eskumenei kalterik egin gabe.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu hau EKFBko batzar nagusiak aldatu dezake.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak aurrekoak arautuko ditu, 60/2003 Legearen aginduzko arauek aldatutakoa eta 11/2011 Legearen bidezko erreformaren ondoriozkoek aldatutakoa izan ezik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditu da 2004ko apirilaren 27ko EKFBren Batzarrak onartutako kirol-arbitrajearen kodearen erregelamendua.

AZKEN XEDAPENAK

Erregelamendu hau EKFBren Batzarrak onartzen duenean webgunean argitaratuko da, hedapen orokorra izateko egoki iritzitako publizitate-jarduerei kalterik egin gabe.